

14. Laborategia

Ariketa: *mandragora.txt* izeneko fitxategiak poligono industrial batean egindako neurketa batzuen balioak ditu eta ondorengo formatu dauka:

POLIGONO MANDRAGORA

LOGRONO JMGP LUN 24 FEB 2000 20:40:38

E1 403.645 557.734

E2 355.287 487.335

E3 352.280 485.227

E4 350.535 482.500

E5 348.645 474.241

E6 315.964 473.830

Fitxategiaren lehenengo bi lerroek poligonoaren izena, herria eta neurketak egin ziren data deskribatzen dituzte. Hirugarren lerrotik aurrera egindako neurketen datuak agertzen dira: puntuaren identifikatzailea eta x eta y koordinatuak, hurrenez hurren.

Diseinatu eta idatzi programa bat, fitxategi horretan agertzen diren puntuen datuak bakarrik pantailaratuko dituen.

Ariketa: *restituidor.txt* izeneko fitxategiak mapa topografiko batean agertzen diren lerro kurbetatik lortu diren datuak deskribatzen ditu. Fitxategi honen lehen lerroetan egilearen eta fitxategiak gordetzen dituen lerro kurben metainformazioa aurkitzen da. Ondoren, 'STR' karaktere katearekin hasten diren lerroetan aurkitzen da lerro kurbak identifikatzen dituzten puntuen informazioa: lerro kurbaren identifikatzailea, puntuaren identifikatzailea, puntu kopurua lerro kurban, x, y eta z koordinatuak eta interesatzen ez zaigun beste hainbat datu.

Diseinatu eta idatzi programa bat fitxategi horretako lerro kurben informazioa pantailan agertzen duena ondorengo formatuarekin:

Fitxategia:

STR 5 1 11 366592.109 4421836.356 420.12 0 1 3300 100

STR 5 2 11 366611.158 4421805.277 420.00 1 1 3300 100

Pantailan:

1. puntua: x= 366592.109 y= 4421836.356 z= 420.12

2. puntua: x= 366611.158 y=4421805.277 z= 420.00